



**Cruz Roja  
Gurutze Gorria**

**150.** ANIVERSARIO  
URTEURRENA  
BIZKAIKO GURUTZE GORRIA  
CRUZ ROJA BIZKAIA

**2023KO  
MEMORIA**

# 2023KO MEMORIA



Cruz Roja  
Gurutze Gorria

# AURKIBIDEA

## 01 HOBEAK IZAN

<b>1.1</b>	Xedea eta ikuspegia	8
<b>1.2</b>	Lurralde-sarea	12
<b>1.3</b>	Zifra nagusiak	14

## 02 150. URTEURRENA BIZKAIAN

## 03 PERTSONAK

<b>3.1</b>	Jakintza-arloak	22
	Sorospenak eta Larrialdia	24
	Gizarteratzea	25
	Enplegua	26
	Osasuna	27
	Hezkuntza	28
	Ingurumena	29
<b>3.2</b>	Jarduketa irizpideak	30
<b>3.3</b>	Pertsonen Gurutze Gorria	32
	Adinekoak eta Zaintzaileak	32
	Haurtzaroa	34
	Gazteak	36
	Muturreko kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak	37
	Migratzaileak	39
	Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak	40
	Gizarte-zailtasunean dauden emakumeak	41
	Langabetuak edo lan-egoera prekarioan daudenak	41
	Presoak edo preso ohiak	42
	Desgaitasunen bat duten pertsonak	42
	Osasun-arazoak dituzten pertsonak	43
	Biztanleria orokorra eta beste kolektibo batzuk	43

<b>3.4</b>	Sentsibilizazio-jarduerak	46
	M8 Emakumearen Nazioarteko Eguna	46
	M2 Eskola-jazarpenaren aurkako Munduko Eguna	47
	M17 LGTBIFobiaren aurkako Nazioarteko Eguna	47
	E5 Ingurumenaren munduko eguna	47
	A25 Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna	48
	GIBaren eta HIESaren aurrean erantzuteko munduko kanpaina	48
<b>3.5</b>	Gazteen Gurutze Gorria	49
	Parte-hartze prozesuak	49

## 04 HORRELAKOAK GARA, HORRELA EGITEN DUGU LAN

<b>4.1</b>	Giza taldea	52
	Boluntariotza	52
	Langileak	57
	Bazkideak	59
<b>4.2</b>	Jasangarritasun instituzionala eta finantzarioa	61
	Jasangarritasun finantzarioa	61
	Baliabide materialak	63
	Funtsen eta aliantzen kaptazioa	64
	Komunikazioa	66

# PRESIDENTE- AREN GUTUNA

**Josu Perón Goitia**  
Bizkaiko Gurutze  
Gorriaren presidentea



**B**izkaiko Gurutze Gorriko lagun maiteak,  
Ohorea da 2023ko Jarduera Memoria honen bidez zuengana zuzentzea. Aurtengo urtea bereziki esanguratsua izan da, Bizkaiko Gurutze Gorriaren 150. urteurrena ospatu dugulako. Harrotasunez betetzen gaituen eta dedikazio eta konpromiso handiagoarekin lanean jarraitzea bultzatzen gaituen mende eta erdiko historia.

Bizkaiko Gurutze Gorriaren aurtengo lana boluntarioen dedikazio nekaezinari, bazkideen eta gure laguntzaileen etengabeko babesari eta gure ekimenetan parte hartu duten erabiltzaile guztien konfiantzari esker lortu da. Elkarrekin, sortzen ari diren beharrei erantzutea eta gure funtsezko programekin jarraitzea lortu dugu, etengabe aldatzen ari den ingurunera egokituz.

2023an, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonei ematen diegun arreta indartu dugu, gizarteratzerara eta One Health kontzeptura bideratutako baliabideak handituz. Ikuspegi horri esker, gizakien, animalien eta ingurumenaren osasuna modu integralean landu ahal izan dugu, pertsona askoren bizi-kalitatea hobetzeko.

Aurten aurre egin diogun erronka handienetakoa pobrezia energetikoaren kontrako borroka izan da. Horregatik, gure ahaleginak areagotu ditugu energia-kalteberatasun egoeran dauden familiei laguntzeko, haien bizi-baldintzak hobetzeko eta energiarako sarbide egokia bermatzeko baliabideak eta aholkularitza emanaz. Lan hori funtsezkoa da inork ez dezan etxea berotzearen edo behar bezala elikatzearen artean aukeratu behar. Reacciona Planari esker, familia gehiagorengana iritsi gaitzke energia-aholkularitzarekin, gaitzuntzarekin, kontsumoa murrizteko elementuak ematearekin, energia-eraginkortasuna hobetzeko eraberritzeekin eta hornidurak ordaintzearekin erlacionatutako ekintza espezifikoekin, besteak beste. Lankidetzara hori pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko egungo operazioerik handienetakoa da.

Klimaren krisia izan da gure ekintzaren ardatz nagusietakoa, jasangarritasuna sustatzen duten programak garatuz. Lan handia egin dugu ingurumen arloko sentsibilizazioan eta hezkuntzan basoberritze-planen bidez, jakin badakigulako ingurunea babestea ezinbestekoa dela etorkizuneko belaunaldientzat.

Aurten, genero-berdintasuna eta aniztasuna sustatzeko ahaleginak ere areagotu ditugu, gizarte inklusiboa eta bidezkoa aurrera egiteko eta ongizate kolektiborako funtsezkoa dela onartuta.

Eskerrik beroenak eman gura dizkiet euren denbora eta energia eskaini duten boluntarioei, eskuzabaltasunez lagundu duten emaila guztiei eta gure kausak babestu dituzten erakunde laguntzaileei. Horien konpromisoa eta elkartasuna dira Bizkaiko Gurutze Gorriaren bihotza eta gure xedearrekin aurrera jarraitzeko arrazoia.

Bizkaiko Gurutze Gorriko talde osoaren izenean, Jarduera Memoria hau irakurtzera gonbidatzen zaitut, gure lorpenak eta erronkak ez ezik, etorkizun hobearen alde lan egiten duen komunitatearen itxaropena eta ahalegin partekatua ere islatzen dituelako.

Eskerrik asko urte berezi honetan eman duzuen etengabeko laguntzarengatik.

# 01



## HOBEAK IZAN

- 1.1** Xedea eta ikuspegia 8
- 1.2** Lurralde-sarea 12
- 1.3** Zifra nagusiak 14

# Xedea eta ikuspegia



## 01 Gizatasuna

Borroka-zelaietan zauritutako guztiei diskriminaziorik gabeko laguntza emateko kezka sortu duen Gurutze Gorriaren eta Ilargi-erdi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua, bere nazioarte eta nazio mailako arloetan, egoera guztietan gizon-emakumeen sufrimendua prebenitzen eta arintzen saiatzen da. Bizitza eta osasuna babesten ditu, baita gizakiarekiko errespetua ere. Elkar ulertzea, adiskidetasuna, lankidetzeta eta herri guztien arteko bake iraunkorra bultzatzen ditu.



## 02 Inpartzialtasuna

Ez du inolako bereizketarik egiten nazionalitateari, arrazari, erlijioari, gizarte-egoerari eta sinesmen politikoari dagokienez. Gizabanakoei laguntzera mugatzen da, sufrimenduekiko proportzioan, haien beharrei erantzunez eta premiazkoenei lehentasuna emanez.



## 03 Independentzia

Mugimendua independentea da. Beren jarduera humanitarioetan botere publikoen laguntzaile izateaz gain, dagozkien herrialdeak arautzen dituzten legeen mende dago. Sozietate Nazionalek, ordea, Mugimenduaren printzipioen arabera jarduteko aukera emango dien autonomia gorde behar dute.

7 Printzipioek esparru etiko, operatibo eta instituzionala ematen diote Gurutze Gorriaren eta Ilargi-erdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduaren lanari.



## 04 Neutraltasuna

Guztion konfiantzari eusteko, Mugimenduak ez du gatazketan parte hartzen ez eta, politika, arraza, erlijio eta ideologia mailako eztabaidetan ere.



## 05 Batasuna

Herrialde bakoitzean Gurutze Gorriaren edo Ilargi-erdi Gorriaren Elkarte bakarra egon daiteke, denentzat eskuragarri egon behar du, eta ekintza humanitarioa lurralde osora hedatu behar du.



## 06 Boluntarioria

Borondatezko sorospen-mugimendu desinteresatua da.



## 07 Unibertsaltasuna

Gurutze Gorriaren eta Ilargi-erdi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua unibertsala da. Mugimendu horren barruan, sozietate guztiek eskubide berberak dituzte eta elkarri laguntzeko betebeharra dute.

---

## Ikuspegia

Espainiako Gurutze Gorriak, erakunde humanitario, borondatezko, gizartean oso errotutako gisa, erantzun integralak emango dizkie kalteberatasun-egoeran daudenei, giza garapenaren eta komunitatearen ikuspegitik, eta euren gizarte-testuinguruan dituzten gaitasun indibidualak indartuko ditu.



---

## Xedea

Estatuan eta nazioartean kalteberatasun-egoeran dauden pertsonengandik gero eta hurbilago egotea, ekintza integratuen bidez. Ekintza horiek, funtsean, boluntarioek egiten dituzte, eta parte-hartze sozial eta lurralde-presentzia zabala dute.

---

## Leloa

Hobeak izan. Pertsona bakoitzak bere buruarekin eta besteekin duen konpromisoa, gure Oinarrizko Printzipioetan oinarritua. Gurutze Gorriaren gonbidapena, erreferente humanitario gisa eta munduko boluntarioen mugimendu nagusi gisa.

# Lurralde-sarea



Bizkaiko Gurutze Gorriak Bizkaiko lurralde osoari erantzuten dio, tokiko/eskualdeko 13 batzarrek osatutako sarearen bidez.

- ✓ Bizkaiko Gurutze Gorriaren Probintziako Bulegoa
- ✓ Nerbioi Haraneko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Eskuinaldeko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Lea Artibaiko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Bermeoko Tokiko Batzarra
- ✓ Mungialdeko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Ezkerraldeko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Durangaldeko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Arratiako Eskualdeko Batzarra
- ✓ Busturialdeko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Enkarterriko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Bilboko Tokiko Batzarra
- ✓ Uribe Kostako Eskualdeko Batzarra
- ✓ Barakaldoko Tokiko Batzarra

1.3

# Zifra nagusiak



25.531


Pertsona Kopurua

Horietatik 11.111 gizonak dira eta 14.420 emakumeak



128.758

Esku-hartze Kopurua



Emakumeak

%57

Gizonak

%43

EZAGUTZA ARLOA	ARTATUTAKO PERTSONAK
Hezkuntza	9.865
Enplegua	798
Gizarteratzea	14.530
Ingurumena	2.061
Osasuna	4.156
Sorospenak	2.107
<b>Guztira orokorra</b>	<b>25.531</b>

# 02



# 150. URTEURRENA BIZKAIAN

**150.** ANIVERSARIO  
URTEURRENA  
BIZKAIKO GURUTZE GORRIA  
CRUZ ROJA BIZKAIA

1873ko apirilaren 12an sortu zen Gurutze Gorria Bilbon, Bizkaian erakunde hori sortu eta garatzeko aukera eman zuen mugarria. Aurten, 2023an, Gurutze Gorriarentzat gure lurraldean hain garrantzitsua den data hori ospatu da. Hain ekitaldi garrantzitsua ospatzeko, joan den urtean programa hau diseinatu zen:



## Gizatasuna gerran (CICR) eskubide humanitarioari buruzko erakusketak eta jardunaldia

Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, James Nachtweyren (2012ko Asturiasko Printzearen Saria) "Gizatasuna Gerran" Erakusketa egin zen. DinA tamainako 140 argazki.

Erakusketaren data: Apirilaren 17tik maiatzaren 5era.

Erakusketa hori Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Humanitarioko Masterreko ikasleei,

Gurutze Gorriko Lanbide Heziketako ikasleei, boluntarioei eta Gurutze Gorriko langileei eta, oro har, herritarrei zuzendutako Zuzenbide Humanitarioari buruzko jardunaldi batekin osatu da.

Jardunaldi horretan Concepción Escobarrek (Gurutze Gorria) eta Gorka Urrutiak (Deustuko Unibertsitatea) hartu dute parte.

## Ekitaldi nagusia

2023ko maiatzaren 3an ospatu zen, eta Lurralde Historiko horretan 150 urteko ibilbide luzean lagundu duten 500 boluntario, bazkide,

administrazio publiko, erakunde eta enpresa laguntzailek baino gehiagok hartu zuten parte.

## Zinemaldia eta Zuzenbide Humanitarioa

Maiatzaren 2an, Bilboko BilboRock Aretoan zuzenbide humanitarioari eta gatazketan Gurutze Gorriaren rolari buruzko proiektzioa egin zen, zehazki, "La luz de Elna" eta "Rojo en la Cruz" filmak eman ziren.


Gurutze Gorriko ikasleek, boluntarioek eta lan-kontratuko langileek parte hartu zuten.



## Erakusketa Bilboko Metroan

Bizkaiko Gurutze Gorriaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko 10 panelen erakusketa egin zen, "150 urte hauen ondoren nora goazen" ikusteko.

Panelak ikusgai egon ziren Indautxu eta Alde Zaharreko geltokietan apirilaren 15etik maiatzaren 15era.



# 03



# PERTSONAK

<b>3.1</b>	Jakintza-arloak	22
<b>3.2</b>	Jarduketa irizpideak	30
<b>3.3</b>	Pertsonen Gurutze Gorria	32
<b>3.4</b>	Sentsibilizazio-jarduerak	46
<b>3.5</b>	Gazteen Gurutze Gorria	49

3.1



# Jakintza- arloak



## Gizarteratzea

Lanean jarraitu dugu desberdintasunak murrizteko eta gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboentzat etorkizunerako aukerak sustatzeko.

Aurkitu dugun testuinguru sozioekonomikoak aldaketak eragin ditu, eta desoreka sozial berriak sortu dira, gure arreta behar duten pertsonen kopurua handituz, ohikoak ez diren profilekin (guraso bakarreko familiak, gazteak, adingabeak...).

Gure konpromisoak hauek dira:

- Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen isolamendua eta bakardadea apurtzen laguntzea.
- Indarkeria identifikatzeko, prebenitzeko eta ezabatzen laguntzeko lan egitea, bereziki umeen, adinekoen eta emakumeen aurkakoa.
- Kalteberatasun-egoeran edo/eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonen gizarte-aktibazioa sustatzea.
- Gizarte inklusiboagoa sustatzea, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak gizarteratzen laguntzeko.



## Sorospenak

Pertsonen euren bizitzak arriskuan jartzen dituzten muturreko egoerak edo kronikoak gainditu ahal izateko egiten dugu lan. Hondamendi naturalen aurrean esposizio-arriskua murrizteko, larrialdi-egoeretako beharrak asetzeko eta osasun-laguntza azkarrago eskuratzeko planak abian jartzen ditugu.

Gure Jarduketa-arloak hauek dira:

- **Prebentzio-zerbitzuak.**
- **Larrialdietan Berehala Erantzuteko Ekipoekin egindako operazioak.**
- **Hondartzetan Istripuen Prebentzio, Salbamendu eta Laguntza Zerbitzua.**
- **Itsas Salbamendua.**





## Enplegua

Enpleguaren eremuan pertsona guztien aukera eta tratu-berdintasuna sustatzen dugu, haien sexua, arraza- edo etnia-jatorria, adina edo sexu-orientazioa edozein dela ere. Horrela, lan-merkatuan dauden aldeak murrizten laguntzen dugu, desabantaila-egoeran dauden pertsonen eta ordezkari txikia duten taldeek euren lan-aurreikuspenak hobetu ditzaten. Horretarako, baliabideak eta gaitasunak ematen dizkiegu, eskuratu ahal dezaten.



Enpleguari buruzko konpromisoak lantzen jarraitzen dugu. Hauek dira:

- Lan-aktibazioko aukerak sortzea eta kalteberatasun-egoeran dauden gazteak lan-merkatuan parte hartzeko eta sartzeko gaitzea.
- Lan-merkatuan parte hartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen aktibazioa, enplegarritasuna eta integrazioa indartzea, 45 urtetik gorako emakumeak eta etorkinak, batez ere.
- Kalteberatasun-egoera larrienean dauden pertsonen arrakalak murriztea, eraldaketa digitalak dituzten enpleguetan parte har dezaten.
- Lan-merkatuaren aliantzak eta erantzunkidetasuna sustatzea, aukera-berdintasunaren aldeko inklusioa ahalbidetuz.



## Osasuna

Osasunari dagokionez, populazio-taldeak eta, bereziki, kalteberatasun-egoeran daudenak, osasun-arazo nagusiei buruz kontzientziatu, prestatu eta informatu nahi ditugu, horrela horien gainean jarduteko eta gure osasuna hobetzeko. 2023an, pandemiaren geroztik okerrera egin duela agerikoa dan osasun mentala hobetzen laguntzeko beharra ikusi genuen. Horretarako, gure GGk Entzuten zaitu zerbitzua indartu dugu, laguntza emozionaleko taldeak sortu ditugu osasun arazo garrantzitsuak dituzten adinekoentzat, eta insomnioa, dolua eta suizidioa prebenitzeko prestakuntzarekin jarraitu dugu. Era berean, STIak ugaritu egin direla eta prebentzioa azpimarratu behar dela adierazi dugu, Osasun Zentroetako pantailetan gaixotasun horiei buruz agertzen diren mezuak indartuz.

Horretarako, hainbat kanpaina egin ditugu, eta Bizkaiko 4.000 gazte baino gehiagorengana iritsi gara.

Adinekoekin lan egitea, hauen berri emanez: entzumena eta ikusmena zaintzea, azala zaintzea, gripearen eta Coviden aurkako txertoa jartzea azpimarratzea, eta berotik edo hotzetik babesteko aholkuak. Horrek guztiak osasunerako lehenetsia izaten jarraitzen du.

Ingurumena zaintzeak osasunean duen eragina ulertzen laguntzeak ONE HEALTH prestakuntza-programa sortzera garamatza, Ingurumenaren Ezagutza Arloarekin koordinatuta eta beste erakunde batzuekin aliantzak sortuz.





## Hezkuntza

Gurutze Gorriaren Hezkuntzako Ezagutza Arloa zalantzarik gabeko balioa duen estrategia da, bai kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboekiko edo biztanle guztiekiko esku-hartzea behar bezala garatzeko, bai erakundearen barne-antolaketa eta kudeaketarako.

Bizkaiko Gurutze Gorriak eskarmentu eta profesionaltasun handia du irakaskuntza soziosanitarioaren arloan: lanbide-heziketako 6 ziklo (16 ikasle-talde), enplegua lortzera bideratutako ikasketak, profesionaltasun-zurtagiria eta SEPE espezialitateak eta gizarte- eta osasun-arloan gaitasunak eta trebakuntza lortzera

bideratutako Gurutze Gorriaren prestakuntza propioa.

Gaur egun, hezkuntza-arloak 7.722 ikasleri ematen die irakaskuntza, 476 prestakuntza-ekintzaren bidez. Horietatik, LHko prestakuntza-graduetako 400 ikaslek eta profesionaltasun-zurtagirietarako 7.500 ikasle inguruk herritar guztiei, kanpo-erakundeei eta langile boluntario eta lan-kontratudunei zuzendutako SEPE espezialitateetarako eta gizarte- eta osasun-arloko beste titulazio batzuetarako prestakuntzak egiten dituzte.



## Ingurumena

Gurutze Gorriak pertsonen bizitza eta segurtasuna, aberastasun naturalak eta ingurumena babesteko balioak sustatzera zuzentzen du bere ingurumen-jarduera, gizarte-desberdintasuna eta muturreko pobrezia eragiten duen mehatxu oro saihestuz.

Bizkaiko Gurutze Gorriak hiru ardatz nagusitan gauzatu du bere ingurumen-jarduera 2023an, eta 250 boluntariok baino gehiagok hartu dute parte bertan.

Gure laneko arloak hauek dira:

- **Ingurumen arloko hezkuntza.**
- **Ingurunearen hobekuntza.**
- **Pobrezia energetikoa.**



# Jarduketa irizpideak



## Hurbiltasuna

Errealitateak aztertzea pertsonengandik hurbilen dauden testuinguruetan, gure

lehentasunekin bat datozen erantzunak sortuz. Tokiko, eskualdeko eta uharteetako batzarrak dira gure elementu bereizlea eta gure indarra. Erakundeak lurralde-batzen errealitatera eta beharretara egokitu behar du, baliabideak (antolamendukoak eta finantzarioak) ingurune ekonomiko eta sozialaren arabera bermatuz.



## Parte hartzea

Herritarren inplikazioa eta ekarpena hobetzea, herritartasun aktiboagoa eta konpromiso etengabekoa

eraikitzeko, beren ekimen propioak bultzatuz. Erakundeak parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko agertoki berriak bultzatuko ditu, gure ideia humanitarioak areagotzeko xedez.



## Boluntarioak

Boluntarioak dira Erakundearen Printzipioen eta Balioen transmititzaile nagusiak, gizartea

aldatzeko eta eraldatzeko eragile gisa antolaketa-gaitasunak indartuz eta erabakiak hartzeko espazio partekatua sustatuz, elkartasunaren adierazpide desberdinetara irekitako erakundearen esparruan. Bereziki, gazteek Gurutze Gorriaren jardueretan eta gobernuan parte hartzea sustatuko da.



## Pertsonarekiko orientazioa

Pertsonak gure konpromiso humanitarioaren erdigunean jartzea, nor bere egoera konpontzen parte

hartzea erraztuz eta erantzunak beharren eta eskubideen arabera planifikatuz.



## Lotura

Pertsonen behar, interes eta gaitasunekiko konpromisoa eta hurbiltasuna agerian uztea. Alerta

goiztiarrak detektatzea, baliabideak eta eragina aktibatzea eta mobilizatzea, pertsona ahulen mesedetan jardun dadin une oro, oinarritzko printzipio humanitarioak erabat errespetatuz.



## Erantzukidetasuna

Erantzukizunak, proiektuak, zerbitzuak eta baliabideak partekatzea lurralde-eremu guztietan

eta horien artean, sareko lana erraztuko duten ereduak bilatuz.



## Berrikuntza

Gurutze Gorria erantzun berritzaileak bilatzen saiatzen da garapen jasangarria lortzeko, Garapen

Jasangarrirako Helburuak (GJH) bultzatuz. Helburu horiek pobreziaarekin amaitzea bilatzen dute, pertsonen ongizatea ingurumen-irizpideekin harmonian bilatuz.



## Erantzun integrala

Ekintza integralak gauzatzea,

Erakundearen lana jasotzen duten pertsonen behar sozialei, fisikoei

eta gabezia emozionalei eta autoestimukoiei erantzuteko.



## Komunitatearekiko orientazioa

Gizarteko beste eragile batzuekiko (ekonomikoak, politikoak,

sozialak) lankidetzeta eta harremana bilatzea, arazoaren kausetan eragiteko eta konponbideak proposatzeko, gure xedearekin, ikuspegiarekin eta printzipioekin bat etorrituz.



## Gobernu ona

Integritate-, austeritate-, gardentasun- eta erantzukizun-jokabideetan oinarritutako erakunde-

eredua bermatzea, barne-kohesioa bermatuz eta jarduera-esparru gisa Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eta 2030 Agenda hartuta.



## Eraginkortasuna eta efizientzia

Prozesuak arintzea eta sinplifikatzea, erakundearen

barne-funtzionamendua optimizatuz, arinagoa, indartsuagoa eta jasangarriagoa izan dadin. Espero diren emaitzak eta inpaktuak lortzera bideratutako kudeaketa.



## Genero-ikuspegia

Genero-ikuspegia Txertatzea zeharka antolamendu-kulturan, egituretan eta laneko prozeduretan,

emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta aldeak ikusaraziz eta aukera-berdintasunaren aldeko konpromisoa gizarte osoari helarazten dion errealitatea izan dadin jardunez.

# Pertsonen Gurutze Gorria

## Adinekoak eta Zaintzaileak

Bizkaiko Gurutze Gorriak aurrera eramandako proiektuetan 4.000 pertsona baino gehiagori eman zaie arreta. Nabarmenezkoa da Adinekoen Programa pixkanaka Bizkaiko Tokiko Batzarretan

sartu dela, eta Zahartze Osasungarriarekin erlazionatutako jardueren hazkundera. 2023an ekintza hauek egin dira:

PROIEKTUAN ZEHAR 2023AN EGINDAKO JARDUERAK	ERABILTZAILEREN KOPURUA
Erabiltzaileari etxean laguntzea	225
Gestioetan laguntzea (kontsulta medikoak, izapideak...)	343
Estimulazio kognitiboko eta mugikorren erabilera tailerrak	256
Atsedeen-jarduerak	225
Aurrez aurreko tailerrak eta hitzaldiak	958
Jarraipen- eta informazio-deiak	1.925
Laguntza-produktuen maileguak	592

### Hotz- eta bero-bolada, gripe-covid txertaketa

Bizimodu osasungarria ez duten pertsonen erantzuna ematen diegu, muturreko tenperaturei aurre egiteko aholkuak emanez, bai neguan, bai udan. Era berean, gripearen eta Covidaren

aurkako txertaketa-kanpainei buruzko aholkuak eman eta zalantzak argitzen dira. 65 urtetik gorako pertsonen zuzendutako esku-hartze hori telefonoz egiten da. 2023an **1.215 dei** egin dira guztira: % 70,3 emakumeek artatu dituzte eta % 29,6 gizonek.

### Jabetuz

Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuaren helburua da Alzheimerria eta beste demenzia batzuk diagnostikatuta dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, hainbat zerbitzu eskainiz: demenziaren ondorioz aldatzen diren funtzio mentalei eustera bideratutako Estimulazio Kognitiboko Tailerrak; Familiaren eta zaintzaileekin esku-hartze integrala izateko tailerrak; zahartzaroan arazo bihur daitezkeen arrisku-faktoreak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko beharrezkoak diren ezagutza teknikoak eskuratzera bideratutako Informazio-jarduerak; eta bere aldaketaren eragile gisa, zahartze aktibo, parte-hartzaile eta osasungarriaren eredu abian jartzea ahalbidetuko duten pertsona ahalduzera eta aktibatuzera zuzendutako jarduerak. 2023an 122 pertsona artatu ditugu.

### Zaintzaileei laguntzeko taldea

Zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzeko tailerrak dira. **2023an, 30 pertsonak hartu dute parte erabiltzaile gisa; horietatik 20 emakumeak dira eta 10 gizonak.**

### Arlo digitaleko gaitasunak

129 erabiltzailek hartu dute parte informazioaren eta komunikazioaren teknologiek erlazionatutako jardueretan: smartphonea erabiltzeko tailerrak, tablet bidezko jarraipenak eta ahots-laguntzaileak.

### Zahartze aktiboa

Hainbat jardueraren bidez, osasun fisikoa eta mentala, independentzia eta bizi-kalitatea mantentzen eta hobetzen laguntzen dugu. 2023an animazio soziokulturaleko jarduerak erregularrak egin dira 513 pertsonarekin, osasun-jarduerak etengabeak 555 pertsonarekin eta animazioko jarduerak puntualak 487 pertsonarekin.

### Laguntza puntualak eta erregularrak

Etkez etxeko laguntza osagarriari dagokionez, 332 laguntza puntual eman dira kudeaketa administratiboetan zein medikoetan. Aurrez aurreko bisitak probintzia osoan egin zaizkie astero 230 pertsonari; 196 pertsonari etxean bertan lagundu zaie eta 34ri erakundeetan eman zaie arreta.

### Telelaguntza

263 erabiltzaileari ematen dizkiegu telelaguntza-zerbitzuak urtean zehar; horietatik 229k telefono finko baten bidez jasotzen dute, 32k telefono-aplikazio baten bidez eta 2k lokalizatzailearen bidez.

### Adinak Biziz

Bilboko Udalaren programa horrek mugikortasun urriko adinekoei aisialdiko jardueretan laguntzeko eta haietan parte hartzeko aukera eskaintzen du, bizikleta egokituak erabiliz, kolektibo horrek jasaten dituen oztopo arkitektonikoak eta beste zenbait oztopo kultural eta sozial gainditzeko. 2023ko urtariletik urte bereko abendura 397 pertsonari eman zaie arreta. Horietatik, 275 emakumeak ziren eta 122 gizonak. Adinaren arabera parte-hartzaileak dagokionez, 81 eta 95 urte bitartekoak izan dira gehienak.

## Haurtzaroa

### Hezkuntza-laguntza - eskola-arrakastaren sustapena

Derrigorrezko eskola-prozesuan zailtasunak dituzten 6 eta 16 urte bitarteko umeei eta pobrezia- eta bazterkeria-arriskuan dauden familiei eskolako laguntza, akonpainamendua, mobilizazioa, informazioa, ondasunak eta laguntza ekonomikoa ematen dien proiektua da. Proiektuaren helburua da umeen eskola-prozesuan eragina duten faktore pertsonaletan eta ingurune koetan eragitea, eskolako errendimendua hobetzen lagunduko dieten zerbitzu eta baliabideetara iristea erraztuz eta arratsaldez eskolako lanak egiten lagunduz. 2023ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte, 209 ume artatu dira guztira, horietatik 95 mutikoak eta 114 neskatok.

### Umeen parte-hartzea

PINEO proiektua, Gurutze Gorriak egiten dituen ekimen eta jardueretan umeen eta gazteen parte-hartzea sustatzean oinarritzen da. PINEOK, modu progresiboan eta tutoretzapean, jolas- eta hezkuntza-ibilbide baten bidez, modu trasnbertsanean gizarte-trebetasunak hobetzea eta adingabeen balioetan hezte bultzatzen duen gizartean eta hezkuntzan parte hartzeko gune izan nahi du, Gazteen Gurutze Gorriaren berriazko programak sustatzeaz gain.

Euren boluntariotzarekiko esperientzia hasten ari diren 8 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako jolas- eta prestakuntza-ibilbidea da proiektua. PINEOK funtsezko hiru helburu ditu:

- Ume gazteak pixkanaka boluntariotzaren parte gisa integratzea.

- Umeei eta gazteei zuzendutako espazio berriak garatzea aisialdirako eta denbora librerako, norberaren eta taldearen inplikaziotik abiatuta, euren testuinguru sozialean hautematen duten errealitatearekiko konpromiso solidarioan eta humanitarioan.
- Balioetan hezte eta jarrera positiboak sustatzea, bizitako esperientzietan oinarrituta.

2023ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra 100 ume artatu dira guztira; horietatik 44 mutikoak dira eta 56 neskatok.

### Ospitalean dauden Umeei Arreta

Gazteen Gurutze Gorriak, Ospitaleratutako Umeei programaren bidez, adingabearen garapenerako onuragarriak diren ekintzak gauzatzen ditu ospitale-ingurunean. Helburu nagusia jolas-jardueren bidez ospitalean dauden umeen, nerabeen eta gazteen bizi-kalitatea hobetzea da. Bi ospitaleetan egiten da: Basurtuko Unibertsitate Ospitalean eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean. Gainera, oso proiektu berria gauzatzen da: Tiritia Irratia. Proiektu hori asteazkeneko egiten da, eta ospitaleratutako umeei eta gazteei euren irratsaioa sortzen dute. Geroago, programa hori Gurutzetako ESiren blogean argitaratzen da, ospitaleko gazteen nahi gabeko bakardadea arintzeko. Gurutzetako Ospitalean 664 umekin lan egin da, 355 neskatok eta 309 mutiko. Basurtuko Ospitalean 244 umekin lan egin da, 126 neskatok eta 118 mutiko.

### Jostailu hezitzailea

Proiektu horren bidez, herritarrei umeentzat hain premiazkoa den jolasari erantzuteko informazioa, tresnak eta baliabideak eman gura zaizkie. Funtsezko bi ildotan lan egiten da:

- Jolasen eta jostailuen erabilerei, tipologiari eta abarri buruzko informazioa eta sentsibilizazioa.
- Gizarte-zailtasuneko egoeran dauden familiei euren ardurapeko umeentzako beharrezkoak diren jolasak eta jostailuak ematea.

Urtean zehar, 7 tailerren bidez sentsibilizazioak egin zaizkie Gazteen Gurutze Gorriaren proiektuetan parte hartzen duten umeen gurasoei eta tutoreei, baita sentsibilizazio-ekintzak ere talde horietako umeen taldeetan. Gainera, neguko kanpainaren barruan, jendaurreko 4 kale-sentsibilizazio egin dira jolasaren astearen bidez. Jostailuak jasotzeko bi egun, gutxienez 16 establezimendutan, eta gutxienez jostailuak biltzeko 28 gune jarri dira

Bizkaia osoan. Era berean, proiektuaren berri eman da bi ekitaldi jendetsutan, hala nola Bilbao Basketekin batera antolatutako “peluxe-zaparradan” eta Bilboko Udalaren errege-kabalgatan. Azkenik, 1.995 neska-mutili jostailu bat eman ahal izan zaie 2023an.

### Familia-harremanaren berrezarpena

Proiektu horrek aurkitzen ez duten senitartekoren bat aurkitzen lagundu nahi die pertsonen. 2023an 4 pertsonak eskatu dute.

### Udalekuak eta aisialdia eta denbora libre

Urtero udan, eguneko udalekuak egiten diren Aisialdi eta Denbora Libreko proiektuak, jolas- eta hezkuntza-girotik lan egin gura du, jolasaren bidez, proiektuaren garapenean boluntarioek diseinatutako dituzten jolas, tailer eta dinamiken bidez. 2023an, guztira, 103 umeei hartu dute parte.



## Gazteak

### Hezkuntzako laguntza, derrigorrezkoa ez den adinean

Proiektuaren helburua da derrigorrezkoa ez den hezkuntzako etaparen sarbidean edo jarraipenean eragina duten faktore pertsonaletan, ekonomikoetan eta inguruneetan eragitea, hezkuntzako laguntzako jardueren, gaikako tailerren, ikasteko tekniken, oratoriaren, parte-hartzearen, gaitasun digitalen eta abarren bidez. 2023an 7 gazterekin lan egin dugu, 4 neskaekin eta 3 mutilekin.

### Nerabeen sentsibilizazioaren sustapena lehen sorospenen arloan, horretarako tailerrak gauzatu

Bilboko Udalak bultzatutako tailer horiek Bilboko udalerriko ikastetxe publiko eta itunduetako Batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzenduta daude, eta helburu hauei erantzuten diete:

- Bihotz-biriketako gelditze egoeretan larrialdiko esku-hartzea ahalbidetuko duten gaitasunak ematea ikasleei: oinarrizko BBB teknikak eta kanpoko desfibriladore erdiautomatikoaren (KDEA) funtzionamenduko teknikak maneiatzea.
- Ikasleak beharrezko ezagutzekin gaitzea, gorputz arrotzak aire-bideak oztopatzea (GAABO) gertatzen denean jardun dezaten.

57 tailer eman dira, eta 1.118 ikaslek hartu dute parte.

## Muturreko kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak

### Oinarrizko premiei premiazko arreta ematea

Hainbat proiekturen bidez antolatzen den eta Gurutze Gorriak 2003. urtetik probintzian gauzatzen duen baliabide ekonomiko eta sozial urriak dituzten pertsonen eta familien zuzeneko arreta emateko programa da.

### Sendagaiak

Sendagaietarako Sarbide programa, alde batetik, erroldatzeko tokirik ez dutelako edo OTIren eskaeraren ebazpenaren zain daudelako osasuntxartelik (OTI) ez duten eta, beraz, farmazia-prestazioen koordainketaren onuradun izan ezin daitezkeen pertsonen zuzenduta dago. Batzuetan, OTI zenbakia izan arren, erroldatzea galdu dutelako horrek balio ez duelako, edo, baliozkoa izan arren, berriro kaleko egoeran daudelako, laguntza guztiak agortu zaizkielako sendagaia ordaintzeko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak ere bertaratzen dira. Pertsona horiek ere hartzen ditugu programan. Kasu horiek beti datoz haiekin lanean ari den eta egoera hori egiaztatzen duen erakunderen batetik. Eta, azkenik, tratamendu kronikoak edo kostu ekonomiko handikoak dituzten eta horien kargu egiteko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak ere baloratzen ditugu. 2023an 736 pertsona artatu ditugu.

### Higiene-produktuak

889 familia artatu dira pixoihalen banaketan.

### Hornidurak ordaintzeko laguntza

Kalteberatasun-egoeran daudenekin lan egiten dugu pobrezia energetikoaren aurkako borrokan.

975 familia artatu ditugu proiektu honetan, hornidurak eta zorrak ordaintzen lagunduz eta hornidura etetea saihestuz, euren etxeetako kontsumoak ulertzeko gaitasuna eta aurreztu ahal izateko jarraibideak emanez. Gainera, eraginkortasun energetikoaren kitaren entrega kudeatzen da.

### Elikadura-bonua

Eusko Jaurlaritzaren Hitzartuz proiektuaren bidez, pertsonen oinarrizko ondasunak eskuratu ahal izatea bermatu nahi da, euren bizitzak baldintza duinetan garatu ahal izan ditzaten. Horretarako, proiektuak funtsezko 4 elementuri eragiten dien ikuspegi integrala ezartzen du: pertsonen euren oinarrizko premiak berehala beteko dituztela bermatzea; gaitasunen garapena bultzatzea, estaldura denboran mantentzeko; pertsonen neurri horiek abian jarri jardun dezaketela ziurtatzea; eta, azkenik, behar den laguntza ematea, denboran zehar oinarrizko premia horiek estaltzeko duten gaitasuna modu iraunkorrean mantentzean. 2023an 2.554 familia artatu dira eta 6.500 entrega egin dira.

### FEAD

2014az geroztik, Bizkaiko Gurutze Gorriak FEADen (Pertsona Behartsuenentzako Europako Laguntza Funtza) elikagai-banaketak egiten ditu. Horretarako, urtean hiru banaketa antolatzen ditu Martxoa-Apirilean, Ekaina-Uztailan eta Urria-Azaroan, eta elikadura-lote bat ematen die arrisku-edo bazterketa-egoeran dauden familietako kide guztiei, balorazio ekonomikoa egin duten eta emaitza positiboa izan duten eskualde-batzarretan.





Aurten, FEAD programaren bidez 4.934 entrega egin dira, eta horietatik 3.775 pertsona baliatu dira, batzar askotan dagoeneko hileroko banaketa hasita.

### Lagun Guneak

Elikagaien Bankuak eta Bizkaiko Gurutze Gorriak, Bilboko Udalarekin batera, Bilboko udalerrian denda edo autozerbitzu sistema bidezkoa eta behar duten erabiltzaileei eskaintzen zaizkien laguntza-neurriekin osatutako elikagaien banaketa eredu proposatu dute.

Aurten, 2023an, eredu hori arreta-gune berrietan jarri da martxan: lehena Erromon, Eskuinaldeko Batzarrean, eta bigarrena Bilbon. Horri esker, 2.985 pertsona artatu ahal izan ditugu.

### Kanpainak: Betaurrekoak, Umeentzako gosariak, eskolako materiala

Produktuak eta dirua biltzeko hainbat kanpainatan parte hartu da, dauden eskaerei erantzuteko eta emandako laguntzak osatzeko. Kanpaina horiekin 562 pertsona artatu dira.

### Trapezistak- Etxerik gabe

24 ostatu-plaza iraunkorren kudeaketa, Peñaskal Kooperatibaren eskutik eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuta, prestakuntza-prozesuetan dauden gazteei bizileku-estaldura emateko. 2023an 69 gazteri eman zaie arreta.

### Neguko kit-en entregak

Neguko 704 kit eman zaizkie etxerik gabeko 525 pertsonari Bizkaiko lurralde osoan, batez ere Bilbon.

### Hotz-boladako Aterpetxea

Gurutze Gorriak Bilboko eta Basauriko udalen aldi baterako gaueko ostatuen zerbitzua kudeatzen du. Bilboko Udalarekin eta Basauriko Udalarekin koordinatuta aktibatzen dira, baldintza klimatologikoengatik larrialdi-neurri gisa "Hotz-bolada" deklaratzenean.

Aurten, 2023an, hotz-bolada 36 gauetan aktibatu da, 4 alditan: 2 urtarrilaren erdialdetik otsailaren amaierara bitartean eta 2 abenduaren bigarren hamabostaldian.

Gurutze Gorriak hainbat dispositibo izan ditu aurten hotz-boladak deklaratzeko diren tenperatura baxuko aldi horietan etxerik gabeko pertsonen estaldura emateko. Guztira, 461 plaza ireki dira urtean zehar.

Zenbait dispositibo zuzenean kudeatu ditu Gurutze Gorriak (341 plaza), eta beste 120etarako hiriko beste ostatu alternatibo batzuk (ostalariak, hotelak, etab.) edo profil espezifikoagoak lantzen dituzten beste erakunde batzuen laguntza izan da, profil kalteberagoak estaltzeko.

Aurten, 2023an, 512 pertsona artatu dira: 489 gizon eta 23 emakume.

## Kalteberatasun-egoeran dauden familientzako tailerrak

### Etxeko ekonomia

87 tailerretan 740 pertsonari eman zaie prestakuntza, etxe barruko kontsumoetan zelan aurreztu, faktura bat zelan interpretatu... lantzeko.

### Elikadura osasungarria

23 tailerretan 257 pertsona prestatu dira, modu osasungarrian zelan elikatu aztertzeko.

## Migratzaileak

### Tailerak

Gurutze Gorriaren helburua migratzaileen bizi-kalitatea hobetzea da, eta, horretarako, hainbat prestakuntza ematen ditu interesgarriak izan dakizkiekeen arloetan.

Trebakuntza horiek gai hauetan zentratzen dira: Osasuna, Hilekoaren Osasunari, Anemia Faltziformeari, Ohitura Osasungarriei edo Ongizate Emozionalari buruzko tailerrekin; herritartasunaren arloan, Ingurunearen Ezagutza, Kontsumo Arduratsua, Generoa eta Aniztasunak edo Familia eta amatasunak bezalako tailerrekin; edo garapen pertsonalaren arloan, Autoebaluazio Pertsonala, Sare Sozialak edo Komunikazio Estiloak bezalako tailerrekin.

### Harrera

Eusko Jaurlaritzaren programa horretan, muturreko kalteberatasun-egoera sozial zein ekonomikoan dauden eta euren oinarrizko beharrak asetzeko beste prestazio publiko batzuk jaso ezin dituzten migratzaileak artatzen dira.

Bizkaiko Gurutze Gorrian, proiektuak bertan parte hartzeri igarotzen diren pertsonak artatzen diren bi parte desberdin ditu. Faseetako bat baliabiderik ez duen pertsonari etxean harrera ematea izango litzateke, bertatik ostatua, janaria, garraioa eta hain premiazkoak ez diren beste behar batzuk estaliz. Bestalde, programaren beste parte bat oinarrizko premiak asetzera bideratuta dago, prestazio ekonomikoak emanez, hala nola alokairua edo mantenua ordaintzeko laguntza. 2023an **18 pertsona bizi izan dira harrera-etxebizitzan**, gehienak familia-kargarik gabeko gizonak, batez ere marokarrak eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetakoak.

### Dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsonak

2023an 35 pertsonak jaso dute laguntza ekonomikoa; horietatik 26 gizonak dira, gehienak familia-kargarik gabeak, eta 9 emakumeak, gehienak familia-kargak dituztenak.

## Elkarrekin bizitzen Tailer Kulturala

Proiektu horren bidez, gaztelania praktikatzeko eta ikasteko testuinguru esanguratsurako sarbidea erraztuko dieten tresnak eskaini gura zaizkie behar duten pertsoneri. Horretarako, funtsezko hiru jarduera ezarri dira: gaztelania tailerrak, jarduera kulturalak eta mintzapraktika saioak (Bikote Linguistikoak Programa eta mintzapraktika taldeak). Ekintza horiek guztiak boluntariora-talde baten bidez gauzatzen dira.

- **Gaztelaniazko klaseak:** boluntarioek ematen dituzte, eta jarduera egunero egiten da. Hainbat maila eskaintzen dira, alfabetizaziotik, A edo B mailak eta bikote linguistikoak, elkarrizketa hobetzeko. 2023an 205 pertsonak hartu dute parte.
- **Bikote Linguistikoak:** programa hau lurraldean egonaldi luzeagoa egiten duten atzerritarrei edo/eta hizkuntza gehiago menperatzen abiatzen direnei, baina bertakoekin harreman gutxi dutenei, gizarte hartzailearen alderdi kulturelari buruzko ezjakintasun handia dutenei eta laguntza-sare hauskorra edo existitzen ez dena

gutenei zuzenduta dago. Aurten 103 bikote linguistiko izan ditugu.

- **Irteera Kulturalak:** Kultur jardueren planteamendu orokorra da, gaztelaniazko klaseei edo tailerrei laguntza emateaz gain, erabiltzaileei leku interesgarriak eta harrera kulturaren alderdi interesgarriak ezagutarazteko balio izatea, guztia giro lasaiagoan. 8 irteera kultural egin dira 2023an.

## Aholkularitza Juridikoa-Aholku Sarea

Zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzaren Aholku Sarearen barruan dago, eta atzerritartasunaren arloko aholkularitza juridikoa ematean oinarritzen da. Migratzaileen beharrak arreta integralaren ikuspegitik asebetetzen ditu, atzerritarren dokumentu-estatusarekin erlazionatutako eskaera guztiei erantzunez. Guztira 560 erabiltzailei ireki zaie espedientea. Nazionalitateen arabera, % 70,4 latinoamerikarrak dira, ondoren % 14,5 magrebiarrak eta % 10,9 Saharaz hegoaldeko afrikarrak.

## Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak

### Gohiabe

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gohiabe programaren bidez, Nazioarteko Babesaren eskatzaileak eta onuradunak integratzea bilatzen da, bai eta NB eskaera ukatu zaienak ere. Programaren helburua da, beste baliabiderik izan gabe, oso kalteberatasun-egoera larrian geratzen diren pertsoneri laguntzea, eta Gohiabe pertsona horien behar oinarritzkoenak asetzen ditu.

**2023an 100 kasu artatu dira (53 emakume eta 47 gizon), eta guztira 204 pertsona izan dira onuradunak.**

### Nazioarteko eta Aldi Baterako Babeseko Harrera Sistema

Bizkaiko Gurutze Gorriak Gizarteratze, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren (MISSM) esku dagoen Nazioarteko eta Aldi Baterako Babeseko Harrera Sistemaren (SAPIT) kudeaketan parte hartzen jarraitzen du. Sistema horren kolektibo jasotzailea kalteberatasun ekonomikoko egoeran eta baliabideetakoan dauden eta Nazioarteko Babesa eskatzen edo jasotzen duten pertsonak edo aberrigabeak dira.

Bizkaiko Gurutze Gorriak SAPITen ibilbidearen bi fasetan garatzen du itundutako ekintza hori: harrera-fasean eta autonomia-fasean. Harrera-faseak **16 ostatu-baliabide** ditu Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta horien artean gizonen, emakumeen eta familien profilen 82 plaza daude. 2023an, **140 pertsonak** hartu dute ostatu Bizkaiko Gurutze Gorriko harrera-faseko baliabideetako plazaren batean.

Autonomia-fasearen ezaugarri nagusia da NB eskaera egin eta dagoeneko aldeko ebazpena jaso duten pertsonen osatzen dutela; izan ere, modu autonomoan kudeatutako etxebizitzetan daude, eta euren oinarritzko premiei erantzuteko laguntza ekonomikoak jasotzen dituzte. 2023an, **38 pertsona** guztira.

## Gizarte-zailtasunean dauden emakumeak

### Ahalduntzeko eta autodefentsarako tailerrak

2023an, 245 emakumerekin egin dira emakumeen ahalduntzerako eta autodefentsarako tailerrak.

### Atenpro

Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako segurtasun-gailu mugikorra. 2023an 10 emakumek erabili dute zerbitzu hori.

## Langabetuak edo laneko egoera prekarioan daudenak

### PIL etorkinak

Proiektu horren bidez, enplegarritasunari laguntzeko zerbitzu integrala eskaintzen zaie migratzaileei. Laneko baimena duten 55 migratzaile artatu dira, eta horietatik 25 lan-merkatuan txertatu dira.

### Proiektu bereziak: arreta soziosanitarioa eta oinarritzko zereginak ostatuetan

40 pertsonarekin egin da lan prestakuntza bakoitzean, Arreta Soziosanitarioan eta ostatuetak oinarritzko zereginetan gaitzeko. Horietatik 10 pertsona lan munduan sartu dira.

### Landa-emakumea- Next Generation- Biltegia

20 emakumerekin egin da lan Biltegiko prestakuntza batean trebatzeko.

### Gernikako enplegu-zentroa

Enplegu Zentroa Gernikan abian jarritako orientaziorako eta lana bilatzeko gunea da. 2023an, 40 pertsonak parte hartu dute lana bilatzen.

### Langabeentzako prestakuntza

#### Profesionaltasun-ziurtagiriak

Ikastaro horien titulazioak profesionaltasun-ziurtagiria ematen du.

- Osasun-garraioa (400 ordu + praktiketako 160 ordu).
- Sorospena uretako espazio naturaletan (340 ordu + 80 orduko praktikak).
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta soziosanitarioa (340 ordu + 80 praktika-ordu).

### SEPE espezialitateetako prestakuntzak

- Gaitasun digitalak.
- Enplegua bilatzeko eta laneratzeko teknikak.
- 2. MAILAKO funtsezko gaitasunak.

Langabeei zuzendutako 13 prestakuntza-ekintza eman dira; guztira, 222 pertsona prestatu dira.

## Presoak edo preso ohiak

### Komunitatearen Aldeko Lanak

2023an 31 pertsonak egin dituzte Komunitatearen Aldeko Lanak.

### Espetxeetako proiektua

Hilean behin, Basauriko espetxean, ohitura osasungarriak hartzea helburu duen 11 tailerreko proiektua da. Egoera sozial, sanitario edo/

eta pertsonalarengatik kalteberatasun berezia duten eta askatasunik gabe dauden pertsonen zuzenduta dago, bereziki PAIEM programaren barruko pertsonen edo erizaintzako modulueta egoiliarrei.

2023an 132 pertsona artatu dira.

## Desgaitasunen bat duten pertsonak

### Garraio egokitua

106 pertsonak erabili dute 2023an garraio egokitua.

### Laguntza-produktuak

Gurutze Gorriak behar fisikoren bat duten pertsonen eskura jartzen ditu haien bizi-kalitatea hobetzen duten laguntza teknikoak, hala nola makuluak, gurpil-aulkiak edo ohe artikulatuak. 2023an **556 pertsona artatu dira guztira.**

## Osasun-arazoak dituzten pertsonak

### Entzuten zaitu

Zerbitzu horrek telefono bidezko arreta ematen du Estatu mailan, behar duten pertsona guztien lasaigarri emozionala izateko. Bizkaian, proiektuaren "orientazio" zerbitzuetik ematen du

arreta, eta kasu batzuetan baliabide espezifikoago batera bideratu daiteke. Horrela, 2023an Bizkaian 13 boluntario aritu dira eta guztira 277 deiri erantzun diete: 96 gizon eta 181 emakume.

## Biztanleria orokorra eta beste kolektibo batzuk

### Lurreko eta uretako prebentzio-zerbitzuak eta konbinatuak

Prebentzio-zerbitzuak gizarte- eta osasun-arloko antolaketa- eta arreta-jarduerak dira, pertsona asko biltzen direlako edo ekitaldiaren ezaugarri bereziak direla eta ekitaldi bat estaltzeko aurrez ikus daitezkeen arriskuak estaltzeko Gurutze Gorriak aurrez egindako plangintzaren ondorio. 2023an itsasoko 55 Prebentzio-ekintza, lurreko 380 eta Premiazko Osasun Garraioaren Sareari laguntzeko 654 ekintza egin dira.

### Larrialdietan esku hartzea

2023an, Gurutze Gorriak SOS Deiak-en bidez eskatutako 19 larrialdi-egoeratan parte hartu du, 137 pertsona artatuz.

Esku-hartze horietan 54 ibilgailu eta talde espezializatueta 143 pertsona mobilizatu dira:

- Aterpetzeko ERIEak, aterpe-eremuak antolatzen ditu, babes- eta higiene-elementuak ematen ditu, baita elikagaiak eta edariak ere.
- Esku-hartze psikosozialeko ERIEak arreta integratzailea ematen die biktimei, kaltetutako pertsonen dituzten behar psikologikoak, sozialak edo/eta sanitarioak asetzeko.

- Uretako bilaketa eta salbamendurako ERIE, ibai, urtegi eta urtegiatan bilaketa, salbamendu eta erreskate lanak egiteko.
- Lurreko bilaketa eta salbamenduko ERIEak, mendiko eta landa-ingurune bilaketa, salbamendu eta erreskate lanak planifikatzen eta gauzatzen parte hartzen du.

### Hondartzetako eta Bermeoko portuko istripuen prebentzio, salbamendu eta laguntza zerbitzua

Hondartzetako istripuen prebentzio, salbamendu eta laguntza zerbitzua Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dago, eta Gurutze Gorriak eman du Bizkaiko kostaldean 2023an, lurraldeko hondartzetako prebentzio- eta osasun-beharrei erantzunez. 2023an 4.678 pertsonari eman zaie laguntza 8.790 zerbitzutan.

Gainera, sorospen-zerbitzua ematen da Bermeoko Matralluen.

### Itsas salbamendua

Itsas Salbamenduko Zerbitzuak prebentzio-lanak egiten ditu nabigaziorako eta itsasoko jardueretarako segurtasunean, bai eta pertsonentzako arriskutsuak izan daitezkeen egoeretan laguntzeko ere.

2023an 169 estaldura egin dira, 197 larrialditan parte hartu da eta 274 trebakuntza eman zaizkie esku hartu duten taldeei.

### Lanbide-heziketako zentroa: prestakuntza-graduak

Gurutze Gorriaren xedea, ikuspegia eta printzipioak kontuan hartuta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan beti azpimarratzen da pertsonak euren garapen integratzean trebatzeko balioak transmititzearen garrantzia eta beharra. Urte hauetan zehar, **Proiektuen Kultura** ezartzean oinarritutako Berrikuntzaren Kudeaketa eredu bultzatzen eta horretan aurrera egiten ari gara.

Era berean, **ERRONKETAN oinarritutako IKASKUNTZA AKTIBO ETA KOLABORATIBOKO** metodologia didaktiko berriak txertatu ditugu. Horrek arrazoiketa eta iritzi kritikoa garatzeko, galderak egiteko pizgarriak emateko, benetako arazoak eta konponbideak proposatzeko, irizpideak garatzeko, egoerak aztertze eta ondorioak ateratzeko aukera ematen die ikasleei. Aurten ere, lanbide-heziketako zentroak, ikasleek praktikak atzerrian egin ahal izateko ERASMUS programan parte hartu zuen, eta berrikuntza gisa, irakasleen trukea sustatu zen, beste hezkuntza-errealitate batzuk ezagutzeko.

### Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- Erizaintzako Laguntzaileen Zaintzako Teknikaria (bi talde).
- Osasun-larrialdietako Teknikaria.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikaria.

### Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Goi Mailako Teknikaria Gizarteratzean (B ereduko hezkuntza-eskaintza).
- Goi Mailako Teknikaria Dietetikan.
- Goi Mailako Teknikaria Laborategian eta Diagnostiko Klinikoan (B ereduko taldea eta A ereduko taldea).

2023an 16 talderekin eta 400 ikaslerekin egin da lan.

### Gurutze Gorriko titulazioak

Bizkaiko Gurutze Gorriak bere titulazio propioak ditu erakundearen izaerarengatik berarengatik espezialista den eremuetan.

- Lehen Sorospenak.
- Desfibrilazio erdiautomatikoa.
- Uretako sorospena.
- Elikagaien manipulazioa.
- Zeinu-hizkuntza.
- Boluntarioen jarduerarako hainbat prestakuntza-ibilbide.

2023an 222 prestakuntza eman dira kanpoko erakundeentzat, 3.864 ikaslerekin, eta 57 ikastaro partikularrentzat, 795 parte-hartzailerekin.

### Henry Dunant-denbora Libre Eskola

2023an 43 ikaslek parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzak nahiz Lanbideren profesionaltasun-ziurtagiriek titulaturako aisialdiko begiraleen 3 ikastaroetan.

### Ingurumen arloko sentsibilizazioko jarduerak

Ingurumenetik, hainbat helbururen inguruan lan egiten da:

- Ingurumen-alderdietan sentsibilizatzea, hiri-hondakinen eta uraren kudeaketa integraleko zirkuituak ezagutzuz eta "One health – Osasun bakarrari" eta hiri-hondakinen kudeaketari buruzko ikastaro eta tailer espezifikoak eginez.
- Naturaguneak garbitzea, gizartea ingurumen-lanetan sentsibilizatzeko bide gisa.

Horrela, naturako zaborra biltzeari lotutako boluntariora-jarduerak egin dira Bizkaian zehar (ibaiak: Barbadun eta Nerbioi, mendiak: Artxanda Bilbon, hondartzak: La Arena-Muskiz, Plentzia, kostaldea: Kantarepe kala Getxon), naturaren interpretazio-zentroetara bisitak (Gallartako eta Urdaibaiko ekoetxeak), ura kudeatzeko zentroak (Galindo-Barakaldoko hondakin-uren araztegiak eta Arrigorriagako edateko uren araztegiak) eta hondakin solidoak kudeatzeko zentroak (Artigas-Araiz: Bizkaiko hondakinen interpretazio-zentroa).

### Zaborratura bilketa

Ingurumen-hezkuntzara eta ingurunearen kudeaketara bideratutako irteerak egin dira hilero. Bi adierazle horiek bi ekintza zehatzen bidez gauzatu dira: hondakinak kudeatzeko zentroetara eta ingurumen-zentroetara bisitak egitea eta hainbat ingurunetan hondakinak biltzea. Belaunaldien arteko talde hori adinekoen arloko boluntarioek eta ingurumeneko boluntarioek osatzen dute, eta elkarrekin jardun dute, urtean zehar hainbat ingurumen-jardura eginez. Guztira 12 jardura egin dira urtarriletik abendura bitartean, eta guztira 222 pertsonak hartu dute parte. Jardura horien artean, ECOEMBESEK finantzaturako Libera proiektuari lotuta daudenak daude. Jardura horren helburua da zenbait tokitan m2 batek mugatutako hondakinak biltzea eta ezaugarritzea; guztira, 500 kg hondakin baino gehiago bildu dira.



# 3.4

## Sentsibilizazio-jarduerak

### 8M Emakumearen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8an, Emakumearen Eskubideetarako eta Nazioarteko Bakerako Nazio Batuen Eguna dela eta, Gurutze Gorritik genero-berdintasunarekin eta emakumeen eskubideekin dugun konpromisoa adierazi nahi izan dugu. 2023an, feminismoaren eta emakume guztien ahalduntzearen alde lanean jarraitu dugu, eta

gure laneko agendaren azalean feminismo hitza jarri dugu berriro, ekitatearen aldeko borrokaren aldarrikapen gisa, "Emakumeei" merezi duten garrantzia emanez. Hori dela eta, "emakume bakarra gara, emakume guztiak gara", lelopean, hainbat sentsibilizazio ekintza egin dira.



### M2 Eskola-jazarpenaren aurkako Munduko Eguna

Maiatzaren 2an Bullying-aren aurkako Munduko Eguna da. 2023an, "Block-a bullying-ari. Jazarpenaren aurrean ez egin ghosting-ik" lelopean, Gurutze

Gorriak 5 sentsibilizazio egin zituen Gazteen Gurutze Gorriko taldeak osatzen dituzten umeekin.

### M17 LGTBIFobiaren aurkako Nazioarteko Eguna

Maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundeak 1990ean homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendetatik kendu zuela oroitarazten da. Diskriminazioaren aurkako egun horretan, transfobiagatik eta bifobiagatik jasaten den

diskriminazioa gogoratu nahi dugu, eta ez ahaztu. 2023an, "Batasuna da gure indarra" leloarekin, Gurutze Gorriak 5 sentsibilizazio-ekintza egin ziren Gazteen Gurutze Gorriko taldeak osatzen dituzten umeekin.

### E5 Ingurumenaren munduko eguna

Ekainaren 5a, Gurutze Gorriaren egutegian herritarrak bizi garen ingurumenaren garrantziaz sentsibilizatzen jarraitzeko ezinbesteko hitzordu gisa markatutako data da. Aurten, ingurumena zaintzeko gutariko bakoitzak egin ditzakeen banakako aldaketa txikien garrantzia eta aldaketa horiek maila globalean eragiten duten modua azpimarratu gura dugu. 2023an, Gurutze Gorriak hainbat sentsibilizazio-ekintza egin ditu, horietatik 5 Gazteen Gurutze Gorriaren proiektuetan parte hartzen duten umeekin.

Ingurumen Sailak Libera proiektuaren karakterizazioan eta bilketa-kanpaina parte hartu du arlo horretako munduko egunean. 2023an, bilketa bat egin da Artxanda mendian, eta emaitza hau izan du: Guztira, **33,6 kg hondakin** bildu ziren, eta horien artean 1.000 zigarrokin baino gehiago nabarmendu behar dira.

## A25 Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna

Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpen bidez, azaroaren 25ean “Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna” izendatu dute, Mirabal ahizpen omenez. 2023an, “Ez begiratu beste aldera, indarkeria ez da zalantzan jartzen” lelopean, 2 sentsibilizazio-

ekintza egin dira kalean, 7 sentsibilizazio-ekintza adingabeekin lan egiten duten lantaldeetan, sentsibilizazio-ekintza 1 Gurutze Gorriaren prestakuntza-zentroko ikasleekin eta 9 1D barne-sentsibilizazio-ekintza.



## GIBaren eta HIESaren aurreko erantzunaren munduko kanpaina

Abenduaren 1a, GIBaren eta hiesaren aurreko erantzunaren munduko eguna, ezinbesteko hitzordua da Gurutze Gorriaren egutegian, gure kezka eta itxaropenak gainerako biztanleekin

partekatzeko. Horrela, bada, Gazteen Gurutze Gorriarekin batera, beste behin ere jarri da abian sentsibilizazio-kanpaina hori, Osasunaren sustapenaren esparruan.

3.5

## Gazteen Gurutze Gorria

**G**azteen Gurutze Gorriak, elkarte osatzen dugun pertsona guztiak elkarteko partaide aktibo eta adierazgarri izango garen partaidetza-ereduaren aldeko apustua egiten du. Aldi berean, eta parte-hartzeko eredu horretatik abiatuta, GGGk aukera sozioedukatiboa eskaintzen die umeei, gazteei eta, oro har, gizarteari. Horregatik, programa, proiektu eta jardueretan umeei eta

gazteek eguneroko ekintzan eta esku-hartzean parte hartzea bultzatzen eta errazten dugu, gure gobernu-, zuzendaritza- eta aholkularitza-organoen bidez elkartearen jardunbide demokratikoak sustatuz. Hori da umeei eta gazteek parte hartzeko eta GGGrekin identifikatzeko, eta, horrela, elkarte batean bete-betean parte hartzeko aukera eskuratzeko modurik onena.

## Parte-hartze prozesuak

2023ko urtarrilean hasi zen tokiko/eskualdeko, probintziako, autonomia-erkidegoko eta estatuko gobernu-organotarako hauteskunde-prozesua. Bizkaian 4 tokiko batzar eratu ziren, euren zuzendaritza eta kontseiluekin:

- Barakaldoko tokiko batzarra.
- Nerbioi Haraneko tokiko batzarra.
- Enkarterriko tokiko batzarra.
- Eskuinaldeko tokiko batzarra.

Ordezkaritza berezi bat ere izan zen Bilboko tokiko batzarrean, eta probintzia-kontseilua eratu zen. Hauteskunde horietan, batez ere emakumeak izan dira ardura-postuak bete dituztenak, eta batzar bakarrean izan da gizon bat zuzendari.

Taldeek aktibo jarraitu ahal izateko, hilero kontseilu guztiak bildu eta astean behin jarraipen-bilerak egiten dira. Gainera, boluntario-talde osoaren prestakuntza sustatzen da, eta edozein eginkizunetan trebatzeko tresnak ematen zaizkie.

Ardatz hauek funtsezkoak dira:

- Hezkuntza.
- Parte-hartzea.
- Boluntarioen motibazioa.
- Prestakuntza.
- Prebentzioa eta esku-hartze soziala umeen eta gazteen kolektiboekin.

04



# HORRELA KOAK GARA, HORRELA EGITEN DUGU LAN

- 4.1** Giza taldea 52
- 4.2** Jasangarritasun  
instituzionala eta  
finantzarioa 61

# Giza taldea

## Boluntariotza

Boluntariotza da Gurutze Gorria definitzen duen elementua eta funtsezko zutabea. Boluntarioak dira, ariketa nekaezin eta solidarioan, kalteberatasunaren erronkei aurre egiteko behar diren erantzunak ematen dituztenak. Adineko pertsonen isolamendua ahalik eta gehien murrizten ahalegintzen direnak, istripuen biktimei arreta eskaintzen dietenak eta erreskate-operazioetan parte hartzen dutenak dira. Umeak eta gazteak balioetan hezten dituztenak, ospitalean dauden umeei laguntzen dietenak eta behar duten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen laguntzen dutenak dira. Horiek dira, halaber, osasunaren garrantzia gogorarazten digutenak, eta mundu jasangarriagoa lortzen laguntzen dutenak. Azken batean, Gurutze Gorriaren benetako motorra osatzen dutenak dira. Horregatik guztiairengatik, Erakundeak boluntarioa eta haren ekintza-gaitasuna ardatz dituen ikuspegiaren alde egiten du, eta garrantzi berezia hartzen duen ereduari jartzen gaitu, ez bakarrik

pertsonen elkartasuna bideratzeko egiten duguna, baita zelan egiten dugun ere. Ildo horretan, uste dugu gure boluntariotza-ereduak motibazio- eta gogobetetze-iturri ere izan behar duela pertsonentzat. Horren ondorioz, boluntariotza kudeatzeko eta garatzeko prozesua sortu dugu, erraztasunean eta sartzeko arintasunean, malgutasunean eta jarduera boluntarioei egokitzean oinarritua. Ekintza boluntarioak berez eragiten duen gogobetetzea lortzen lagunduko duen eta Laguntza, jarraipena eta prestakuntza emango duen eredurantz ere mugiarazten gaitu. Azken batean, alde batetik, pertsonen parte-hartzea modu indibidualizatuan erraztea ahalbidetuko duen eredu malgu eta moldagarria, eta, bestetik, aldaketei erakunde gisa aurre egitea ahalbidetuko duena, giza baliabideak eta ingurune eskarien aurreko erantzunak azkar birkonfiguratu.

### Boluntariotzaren VIII. Topaketa Autonomikoa

2023an Boluntariotzaren VIII. Topaketa Autonomikoa egin da Durangon, Bizkaian. Gure eremuan jada ohikoa den ekitaldi horren helburua Euskadiko Gurutze Gorriko boluntario guztientzako topaketa eta ospakizun jardunaldia eskaintzea da. Oraingo honetan jarraipena eman zitzaion 2022an Arabako Lurraldean inauguratu zen eta boluntarioek hain gustuko izan zuten FestiVOL formatuari.

Ospakizuna urriaren 28an izan zen, eta Gurutze Gorriko Euskadiko hiru lurraldeetako 300 boluntario baino gehiago elkartu ziren. Bizkaia eta, bereziki, Durango, izan ziren ekitaldi autonomiko horren anfitrioi. Jardunaldia Landako Gunearen barrualdean eta jai giroan egin zen. Bertan, eguneko esparru orokorra ekarri zuten musika, jolas jarduerak, lehiaketak eta giro bikaina nabarmendu ziren.



**Boluntarioen profila**

2019-2023 ziklo estrategikoaz geroztik, Gurutze Gorriak bere kudeaketa eguneratzearen aldeko apustu sendoa egin du, tresna digitalak eta datuen kalitatea indartuz, horrela bere neurketa eta jarraipena hobetzeko. Estrategia horren barruan, Bizkaiko Gurutze Gorria 2023an hasi da lanean erakundearen datu-baseak berrantolatzeko. Faktore horrek, urteko memoriaren formatu berriarekin eta haren neurketa-ereduekin batera, aurreko edizioen eta 2023ko memoria honen artean aurki litezkeen aldeak azaltzen ditu. 2023an, Bizkaiko Gurutze Gorriaren oinarri sozialak 11.800 boluntario baino gehiago ditu. Horien artean, 2.730 pertsonak konpromiso irekia eta erakundearen proiektuei dedikazio aktiboa ematen diete, eta 9.074 pertsonak, berriz, noizbehinkako harremana dute erakundearekin.



**11.804**

Boluntarioak

**2.730**      **9.074**

Aktiboak


Noizean behingoak



**1.127**

Eskatzaileak guztira

Gurutze Gorriarekin boluntariotza egitea eskatzen duten pertsonen kopurua erakundearen osasuna neurtzeko beste adierazle bat da; izan ere, urtero gure programa eta proiektuetan borondatez parte hartzera erakartzen ditugun pertsonen fluxuaz hitz egiten digu. Kasu honetan, hirugarren urtez jarraian, balio hori lankidetzan aritzeko interesa duten 1.000 pertsonatik gorakoa da, eta horrek, zeharka, elkartasunaren bidez parte-hartze komunitarioaren interes sozialaz ere hitz egiten digu.



**%56,96**

Emakume boluntarioen %




**%43,04**

Gizon boluntarioen %

Duela zenbait urtetik, Gurutze Gorriaren proiektuetan borondatezko parte-hartzea handiagoa da emakumeen kasuan gizonen

kasuan baino. Joera hori gero eta nabarmenagoa da urtero, eta 2023an taulan adierazitako indizeetan kokatzen da.


ADINA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	%
< 20	55	103	158	% 1,34
20-29	677	1.086	1.763	% 14,93
30-39	1.092	1.754	2.846	% 24,10
40-49	1.879	1.495	3.374	% 28,58
50-59	1.480	650	2.130	% 18,07
60-69	320	511	831	% 7,04
70-79	180	325	505	% 4,28
80-89	29	64	93	% 0,79
≥ 90	1	103	104	% 0,88
			<b>11.804</b>	



Ikus daitekeenez, Bizkaiko Gurutze Gorrian adin guztietako boluntarioek parte hartzen dute. Hala ere, 30 eta 49 urte bitarteko boluntarioak nabarmentzen dira, bertan biltzen baita boluntarioen ia % 54a. Bestalde, ikus daiteke boluntarioen ia % 12ak 60 urte edo gehiago dituela, eta % 17ak baino gehiagok 30 urte baino gutxiago.

2023an, Bizkaiko Gurutze Gorriko boluntarioek guztira 100.000 boluntariotza ordu baino gehiago egin dituzte Erakundearen. Herritarren partaidetza hori Gurutze Gorriaren proiektuen bidez bideratzen da, eta gure jakintza-arloetako plan eta programen bidez banatzen da nagusiki. Ildo horretan, Gizarteratzearen arloa da azken

urteotan parte-hartze handiena izan duena, eta haren atzetik datoz Sorospenak eta Larrialdiak eta Gazteen Gurutze Gorria. Hala ere, interes handia dute herritarren parte-hartzea benetan garrantzitsua den beste arlo batzuek ere, hala nola Ingurumenak, Osasunak, Enpleguak edo Hezkuntzak. Era berean, boluntario askoren motibazioa ez da proiektu zehatzetan edo profil jakinetan parte hartzea; aitzitik, euren ahalegina proiektuak aurrera ateratzera bideratzen dute, kudeaketa, administrazio-laguntza, laguntza- edo errefortzu-lanak eta abar oinarri hartuta. Borondatezko lankidetzaren modu hori benetan funtsezkoa da Erakundearentzat.



102.840

Egindako orduak

**Boluntariotzarako prestakuntza**

Gurutze Gorriaren programetan eta proiektuetan lan egiten duten **boluntarioen barne-prestakuntza** balio garrantzitsua da gure hezkuntza-estrategian, profesionaltasun eta

kalitate handiagoa baitakar erakundeak gauzatzen duen ekintza bakoitzean.

Urtean zehar 76 ikastaro egin dira eta horietan 1.803 boluntariok parte hartu dute.

**Langileak**

	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Hondartzarik gabe	227	97	324	62,79
Hondartzak	32	160	192	37,21
<b>Guztira, oro har</b>	<b>259</b>	<b>257</b>	<b>516</b>	<b>100</b>

Arloa	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Administrazioa eta kudeaketa	10	7	17	3,29
Funtsen eta aliantzen kaptazioa	2	7	9	1,74
Gizarteratzea	149	26	175	33,91
Osasuna	1		1	0,19
Sorospenak eta larrialdiak	48	193	241	46,71
Boluntariotza	7		7	1,36
Hezkuntza/prestakuntza	37	23	60	11,63
Gazteen gurutze gorria	5		5	0,97
Marka eta komunikazioa		1	1	0,19
<b>Guztira, oro har</b>	<b>259</b>	<b>257</b>	<b>516</b>	<b>100</b>

Batzarrak	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Durungaldeko EB	5	3	8	1,55
Enkarterriko EB	5	1	6	1,16
Lea artibaiko EB	1	10	11	2,13
Eskuinaldeko EB	10	5	15	2,91
Ezkerraldeko EB	2	3	5	0,97
Arratia haraneko EB	3	1	4	0,78
Nerbioi haraneko EB	12	8	20	3,88
Bermeoko TB	1	6	7	1,36

Batzarrak	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Bilboko TB	45	13	58	11,24
Probintzia Bulegoa	170	205	375	72,67
Busturaldeako EB	5	1	6	1,16
Barakaldoko TB		1	1	0,19
<b>Guztira, oro har</b>	<b>259</b>	<b>257</b>	<b>516</b>	<b>100</b>
Lanaldi motaren arabera	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Lanaldi osoa	187	221	408	79,07
Lanaldi partziala	72	36	108	20,93
<b>Guztira, oro har</b>	<b>259</b>	<b>257</b>	<b>516</b>	<b>100</b>
Kontratu mota	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Kontratu mugagabea	150	208	358	69,38
Aldi baterako kontratua	109	49	158	30,62
<b>Guztira, oro har</b>	<b>259</b>	<b>257</b>	<b>516</b>	<b>100</b>




## Bazkideak



Bizkaian elkartasuna hazten laguntzen duten


24.402 bazkiderekin itxi du BGGk 2023. urtea. Gure bazkideen ekarpenari esker, elkartasuna gure lurraldean kalteberatasun-egoeran dauden pertsona eta familiengana iristen da. Pertsona askoren bizitza ez litzateke berdina izango Gurutze Gorriko bazkideen eta emaileen laguntzarik gabe. Bizkaiko enpresek ere laguntza ematen digute, izan ere, 494 enpresa dira BGGko bazkide. Azken finean, Bizkaiko Gurutze Gorriak 24.896 bazkiderekin itxi du 2023. urtea, enpresen eta pertsona fisikoen artean; 2022an, berriz, 24.629 bazkide izan ziren. Horrek igoera txiki bat erakusten du, eta 2021etik gertatzen ari zen

negatiboan ixtearen joera apurtzen du. Erakundea benetako ahaleginak egiten ari da ekarpen kopuruari eusteko, proiekturik kaltetu ez dadin, eta Bizkaiko gizartearen erantzuna datu positibo horietan islatzen da. Ekarpene orok milaka familiarri laguntzen die, izan ere pertsona eta erakunde askok alde markatzen dute. Bizkaiko Gurutze Gorria lehentasunezko jardueratzat jotzen da garapenerako lankidetzaren eta esku-hartze sozialaren eremuan, eta, beraz, ekarpen ekonomiko bakoitzeko emandako zenbatekoaren % 45 desgrabatu egingo da.



♀ 14.396 Emakumeak  
♂ 10.006 Gizonak

BAZKIDEEN BILAKAERA URTEZ-URTE	EMAKUMEAK	GIZONAK	ENPRESAK
2019	14.689	9.984	542
2020	14.812	10.058	507
2021	14.599	9.905	514
2022	14.288	9.835	506
<b>2023</b>	<b>14.396</b>	<b>10.006</b>	<b>494</b>



4.2

# Jasangarritasun instituzionala eta finantzarioa

## Jasangarritasun finantzarioa



17.473.999 €

Gastuak



17.606.287 €

Diru sarrerak



132.288 €

Emitza

GASTUAK / ARLO BAKOITZARI DAGOKION KUDEAKETA	ZENBATEKOA / €	%
Funtsen Bilketa eta Aliantzak	1.147.760	% 6,57
Eragiketen Zentroa	44.173	% 0,25
Nazioarteko Lankidetzak	3.658	% 0,02
Gazteen Gurutze Gorria	223.540	% 1,28
Hezkuntza/Prestakuntza	2.236.119	% 12,80
Enplegua	199.481	% 1,14
Azterlanak eta Gizarte Berrikuntza	76.912	% 0,44
Kudeaketa eta Administrazioa	1.667.032	% 9,54
Gizarteratzea	7.145.775	% 40,89
Marka Eta Komunikazioa	79.592	% 0,46
Ingurumena	191.766	% 1,10
Osasuna	6.664	% 0,04
Informazio-Sistemak	131.621	% 0,75
Sorospenak eta Larrialdiak	3.988.705	% 22,83
Boluntariora eta Lurralde Sarearen Garapena	331.201	% 1,90
<b>Guztira orokorra</b>	<b>17.473.999</b>	<b>% 100</b>

KONTU BAKOITZARI DAGOZKION SARRERAK	ZENBATEKOA / €	%
Zerbitzu-ematea	4.470.492	% 25,58
Funtsen bilketa	3.922.981	% 22,28
Dirulaguntzak	8.775.591	% 49,84
Hiri-finkak	239.199	% 1,36
Sarrera finantzarioak	30.524	% 0,17
Ezohiko diru-sarrerak	134.347	% 0,76
Horniduren eta galeren gehiegizkoak eta aplikazioak	33.153	% 0,19
<b>Guztira orokorra</b>	<b>17.606.287</b>	<b>% 100</b>

## Baliabide materialak

<b>Anbulantziak</b>	<b>11</b>	Lur Orotako uretako erieko Pick Upa	1
OBE (oinarrizko bizi-euskarria) ambulanziaz	7	Lur Orotako uretako erieko furgonia	1
BEA (bizi-euskarri aurreratua) ambulanziaz	4	Lur Orotako uretako erieko Pick Upa larrialdietarako eta laguntza humanitariorako	1
<b>Biktimen Sailkapenerako ERIE kamioia</b>	<b>1</b>	Lur Orotako uretako PSL Pick Upa	1
<b>Zerbitzu Medikoen Kamioia</b>	<b>1</b>	Mendi Taldeetako Lur Orotakoak	3
<b>Itsasontziko atoiak</b>	<b>9</b>	Mendi Taldeetako Lur Orotako Pick Upa	1
<b>Hurbileko ibilgailuak</b>	<b>9</b>	Itsas Salbamenduko eta Hondartzetako laguntzarako Lur Orotako (Pick up motakoak)	5
Operazio-buruaren ibilgailuak	3	<b>Itsasontziak</b>	<b>35</b>
Hurbileko GNC ibilgailuak	2	AB maila	2
Hurbileko ibilgailu hibridoak	4	B maila	8
<b>Garraio Egokiturako Ibilgailua</b>	<b>15</b>	C maila Aurreratua	4
Garraio Egokiturako GLP Ibilgailuak	8	C maila	11
Garraio Egokiturako Ibilgailuak	7	C maila (barruko urak)	7
<b>Osasun Postu Aurreratuak eta Ekipazioa</b>	<b>2</b>	Wave Boat - Uretako moto ontziaren kaskoak	3
<b>Denda Kamioia (Prestatutako janariaren hornidurako ibilgailua)</b>	<b>1</b>	<b>Erreskateko uretako motoak</b>	<b>12</b>
<b>Larrialdietarako eta laguntza humanitariorako furgoi mistoak</b>	<b>5</b>	<b>Erreskateko quad-ak</b>	<b>8</b>
<b>Lur orotakoak</b>	<b>13</b>	<b>Erreskateko buggy elektrikoa</b>	<b>9</b>



131

Recursos materiales

## Funtsen eta aliantzen kaptazioa

### Enpresa-lankidetzak

600 enpresa inguru ari dira Gurutze Gorriarekin lankidetzan Bizkaian. Laguntza hori ekarpen ekonomiko, boluntariotza korporatibo, gauzako dohaintza, babesletza, probono jarduera, proiektu jakin baterako diseinatutako ekimen... gisa dator. Elkar ezagutzea da gakoa, eta gertatzen ari diren aliantzen sarean islatzen da hori.

Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko lanean, erantzunkidetasuna funtsezkoa da, eta, alde horretatik, Bizkaiko Gurutze Gorria gizartearen eta bere ekintzarekin 2030 Agenda betetzen laguntzen duten erakundeen eta pertsonen sarearen parte da.



### Beste lankidetzak batzuk

Bilboko Gurutze Gorriak Banderatxoaren Jaia ospatzen du urriaren 11n duela urte batzuetatik hona. 400 boluntario baino gehiago, 17 mahaitan banatuta, ateratzen dira, itsulapikoa eskuan, bilbotarren laguntza eskatzera. Aurten, diru-bilketak Gurutze Gorriak Entzuten zaitu proiektua izan du helburu. Proiektu horren bidez, laguntza eta akonpainamendu psikosoziala eskaintzen diegu gehien behar dutenei. Bildutako zenbatekoa 17.905 €-koa izan da.

“Enamórate+Maitemindu” ekimenak gogorarazten digu San Valentín bezalako egun berezi batean gure adinekoek ere eurekin oroitzera nahi dutela. Adinekoen Pausoka programako boluntarioek, Bilbo, Galdakao eta EHUko ostalaritza eskolen lankidetzari esker, bonboiak saltzen dizkiete Bilboko oinezkoei, maite dituzten pertsoneri oparitzeko. 1.500 € inguru bildu ziren.



### Urrearen Zozketa

Gurutze Gorriaren zozketa solidarioa, Urrearen Zozketa, erakundearen finantzaketa-iturri nagusietakoa da. Kalteberatasun-egoeran dauden pertsona askoren egoera hobetzeko beste lankidetzak bide bat da.

“Urrea dirudi, Gurutze Gorria da” leloarekin 641.850 € saldu dira Bizkaian 2023an. Urrearen Zozketak, 7 milioi euro edo haren balioa urretan baino gehiago hartzen dituzten 11.700 saritik gora banatzen ditu.



## Komunikazioa

Komunikazioaren arloan, aurten hauek lortzeko egin dugu lan:

- Marka-lana zeharka sistematizatzea ezagutza-arloekin, posizionamenduari eta marka-sistemarekin koherenteak eta sendoak diren garapenak ziurtatzeko.
- Lotuko eta mobilizatuko duten narratiba berriak eraikitzen jarraitzea, Gurutze Gorrian egiten duguna “zergatik” egiten dugun azaltzen duten ildo estrategikoak txertatuz, gure Oinarrizko Printzipioei balioa emanez eta “zertarako” balio duten adieraziz: ingurune inklusiboak, seguruak, osasungarriak eta jasangarriak bultzatzeko eta sortzeko.
- Ezagutzan zein emozioan garrantzitsuak diren edukiak sortzeko prozesuan jauzi kualitatiboa ematea eta ORAINGO ekosistema harpidedun berriekin handitzea.
- Larrialdietako komunikazioaren kalitatea eta azkartasuna hobetzea.
- Kanal digitaletan “orban gorria” finkatzea eta interakzio eta lotura maila handiagoak lortzea.
- Medioetako inpaktuak kualifikatzea, jakintza-arloen arabera inpaktu bertikalak lortzea, eta mota guztietako baliabideekin harreman dinamikoak, segmentatua eta pertsonalizatua ezartzea.

### Webgunea eta sare sozialak

**147.492** bisita webgunera  
www.cuzrojabizkaia.org

**12.407** Jarraitzaile Facebook-en  
www.facebook.com/cuzrojabizkaia

**9.187** Jarraitzaile X-n  
www.x.com/cuzrojabizkaia

**13.361** Jarraitzaile Instagram-en  
www.instagram.com/cuzrojabizkaia

**13.500** Jarraitzaile YouTube-n  
www.youtube.com/cuzrojabizkaia

**120.711** Jarraitzaile TikTok-en  
www.tiktok.com/@cuzrojabizkaia

**200** Jarraitzaile Flickr-en  
www.flickr.com/photos/cuzrojabizkaia

### Komunikabideak

**1.478** Inpaktuak

